

UDAL KIROL KONTSEILUA: AKTA

ESKEMA	
<u>Izenburua</u>	UDAL KIROL KONTSEILUA..... zbkia: 02-12
<u>Bileraren datuak:</u>	<p>Bertaratutakoak:</p> <p>Oarsoaldea I.K.E.- Oartzungo S.S.K.T. – Oartzun K.E. – Girizia Mendizale Taldea – Txost – Hautzaro ikastola – Elizalde Herri Eskola – Euskal Makila taldea –</p> <p>Oartzun Udaleko Euskarako zinegotzia- Irati Etxebeste Oartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotzia- Oihan Tello Oartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako teknikaria- Jokin Sukuntza Oartzun Udaleko Udal Kirol Kontseiluko koordinatzailea- Jokin Agirre Okisa S.A. Hautzaro Kirol Elkartea DPO-Baobab Oiarpe K.E. Hautzaro Mendi Taldea</p> <p>Ez Bertaratutakoak:</p> <p>Oartzun Udaleko Alkatea Power Rangers Areto Futbol taldea Tximeleta K.E. Kizkitza Makazaga Rexu Mazusta M^aAsun Arizkuren Lartaun Zikloturistak Elkartea Girizia sokatira Girizia eskalada Girizia txirrindularitza HELTA Esait Elizaldetarrak Judo Elkartea Honbu kenpo – kai taldea GEZAK –</p> <p>Gai zerrenda:</p> <p>Eguna: 2013. ko maiatzaren 28 a. Hasiera ordua: 19:00 Amaiera ordua: 20:30 Gai zerrenda:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. KIROLAZ.COM datu basearen horniketaren inguruko gora beherak eta lehenengo datuen aurkezpena 2. Funtzionamendu gastuetarako diru laguntzen aurkezpena. 3. Eskualde mailako kirol elkarten tratamendua 4. Eskaerak eta galderak

KIROLAZ.COM datu basearen horniketaren inguruko gora beherak eta lehenengo datuen aurkezpena

Kirolaz prozesuaren aurkezpen bat egin zen, bertan power point bat jarri zen Kirolaz proiektua azaltzeko asmoz.

1

KIROLAZ

PROZESUA

2

AURKEZPENA

- KIROLAZ.COM sortzen du Oiarzungo Udalak.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegora erregistroa eskatu da.
- Marxin jarri da proiektua aurten
- Datu baseen erregistroa

3

IZEN EMATEA

Hurmege denda onlineko:

"Inprimaki honen bitartez jasotako datuak tratamendu automatizatua izango dute eta KIROLAZ datu basean berraztertuko dira. Datu hauek esplotazio estatistikoa egiteko soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publikoetara edo beste erik laga edo jakinaraz ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurre kuditakoa gertatzen denean. Interesdunek datuak eskuratzeko, ez ezatatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabiltzeko ahal izango dute Oiarzungo Udalean, Gazteria eta Kirola Sailean, Done Eztebe enparantza, 1 - 20180. Edota helbide elektronikoa honetan info@kirolaz.com"

4

DATUEN SARRERA ETA JARRAIPENA

- Elkarte eta erakundeek sartu behar dituzte datuak.
- Fitxak edo egiaztagiri ofizialak entregatu.
- Ohiko arazoak:
 - Datu basean jada dauden pertsonak
 - Idazketa arazoak eman ditzaketen pertsonak
 - Bakarrikako kiroltari taldeen banaketa.

5

DATUEN ANALISIA ETA EXPLOTAZIOA

UDALAREN DIRU LAGUNTZA ERZUZIOAK

KIROI POLITIKA OBJETIBOAGO BAT EDURE AHAL IZATEKO EXPLOTAZIOA

GIKIDAZ

GIKIDAZ

UDALAREN SIRRAL ETATAREN ANALISIA ETA HIRU BARRIKETA

UDALAREN SIRRAL ETATAREN ANALISIA ETA HIRU BARRIKETA

6

ESKERRIKASKO

Aurkezpen honen bitartez, azaltzen da, KIROLAZ proiektua, ez dela udalarentzako egindako proiektua soilik eta erakundeek ere erabil ahal izango dutela eta beraiantzako ere erabilgarri izateko lanean ere ari dela.

Honen adibide gisa lantzen ari den kontsulta orriaren borradore bat erakusten da, eta bertan ikusten da egin ahal izango diren gauzetatik adibide batzuk.

OSSKT-ko ordezkariak galdetzen du ea kontsulta erabilgarriak gorde ahal izango diren, eta erantzuten da hasiera batean ez dagoela aurreikusia, baina saiakera egingo dela egin ahal izateko.

Eskualde mailako kirol elkarteen tratamendua

Gogorarazten da, Mendi taldeak Udal Kirol Kontseiluak onartutako diru laguntza irizpideetatik kanpo gelditzen dela, eta lehengo urtean honekin batera ere Oarsoaldea IKE ere kanpo gelditu zela eskualde mailako kirol taldea zelako. Honen inguruan, aurkeztu nahi da, aurten eskualde mailako kirol mahai bat sortu dela eta mahai honek trataera berezi bat eman nahi dio Oarsoaldea IKE-ri, eta etorkizunean sor daitezkeen beste eskualde mailako elkarteeri. Hau honela, diru laguntza irizpide bereziak jarriko zaizkio Udal Kirol Kontseilutik kanpo.

Funtzionamendu gastuetarako diru laguntzen aurkezpena

Diru laguntzen aurkezpena egin aurretik euskararen inguruko irizpideak birplanteatu nahi dituzte Ttur Ttur elkartekoek.

Lehengo urtean, euskararen inguruko irizpideak euskara tituloetan bakarrik oinarritzen ziren. Aurtengo urterako aurrera pausu bat eman da eta Ttur tturrekin egindako konbenioak kontutan hartzea erabaki da Udal Kirol Kontseilutik.

Era honetan, Ttur Ttur elkarteak proposamen berri bat aurkeztu dio Udal Kirol Kontseilu honi, hurrengo urteetarako aldatu daitekelerik.

Horretarako, Garazi Portugalek hartu du hitza, Ttur Ttur elkarteko suspertzaile bezala. Bertan aurkezpen bat egin du 2006an hasita gaur egun arte emandako pausoekin. Bertan adierazten da 2009an 29 elkartek sinatu zutela hitzarmen nagusi bat, eta elkarte bakoitzak hartu zituela bere elkartean euskararen hobekuntzarako konpromezu batzuk. Ttur Ttur elkartearen iritziz diru laguntzak hitzarmenarekin lotzea ez dute egoki ikusten bere izaera gal baitezake, elkarteek diru laguntzengatik sinatu baitezakete.

Honez gain, eskatzen da EGA tituloaz aparte, baliokidea den froga ere onartzea, udalak aukera emango duelarik nahi duenak egin ahal dezan.

Hau eragozteko, dokumentu bat aurkeztu dute beraien ustetan euskararen inguruko irizpideak izan beharko lutenekin:

EUSKARA ELKARTERA EGITASMOA:

Oiartzungo elkarteetan euskararen erabilera areagotzeko **EUSKARA ELKARTERA** egitasmoa jarri genuen martxan 2006an. Herriko 30 elkarte egitasmoan parte hartzea erabaki zuten eta geroztik hitzarmen orokorra sinatuta dute Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunearekin eta Oiartzungo Udalarekin. Ordutik, elkarte bakoitzak bere neurriko hitzarmen zehatza onartu eta martxan jartzea izan da lana. 2009an hitzarmen zehatza betetzeko plangintza osatu genuen elkarteekin batera, beraiek hartutako hainbat konpromiso betetze bidean jartzeko. 2013a hitzarmen zehatz horiek baloratzeko urtea da.

NOLA EGIN GENUEN AUKERAKETA?
 Aisialdi elkarte guztiakin harremanetan jarri nahi izan genuen. Horretarako, udalak zuen elkarteen zerrenda batetaz baliatu ginen, guk ezagutzen genituenak ere sartu genituen. 49 elkarteko zerrenda osatu genuen. Elkarte hauei gutuna bidali genien proiektu berri honen berri emateko eta beraiekin harremanetan jarriko ginela adierazteko. Elkarteren bat ahaztu eta berak ere parte hartu nahi zuela pentsatuaz, prentsan ere honen berri eman genuen. 49 elkarte horietatik 29 sartu ziren egitasmoan eta 2006an hitzarmen orokorra sinatu zuten. 2009an hitzarmen zehatzak sinatu genituen.
 (zerrendatik kanpo gelditu ziren elkarteak, oso elkarte txikiak zirelako edo jendartean apenas eraginik ez zutelako geratu ziren zerrendatik kanpo).
 Azken urtean elkarte batzuk gerturatu dira guregana (4 elkarte) eta beraien errealitatea kontutan hartuta hitzarmen bereziak sinatu ditugu.

Hitzarmen zehatzentzat:	<p>-Euskararen ezagutzari dagokionez.</p> <p>-Idatzizko irudi eta errotulazioari dagokionez: kanpoko errotulazioa, barruko errotulazioa, kanpo eta barne erabilerarako elementuak.</p> <p>-Ahozko barne harremanei dagokionez.</p> <p>-Idatzizko barne harremanei dagokionez.</p> <p>-Ahozko kanpo harremanei dagokionez.</p> <p>-Idatzizko kanpo harremanei dagokionez.</p>
--------------------------------	--

Diru laguntzak erabakitzerakoan euskararen erabilera maila Euskara Elkartera egitasmotik ez baloratzeko arrazoiak:

Euskara elkartera egitasmoan herriko elkarteak borondatez sartu ziren. Hemen egin duten lana diru laguntza lortzen duten edo ez erabakitzeke bada bi arrisku aurreikusten ditugu:

- o Aurrerantzean euskararen erabilera areagotzeko asmorik ez dutenek egitasmoarekin bat egin nahi izatea.
- o Egitasmoa borondatezko izatetik "egin behar" izatera pasako litzake. Diru laguntza lortzeko pasa beharreko/egin beharreko zerbait.

Bestetik, orain arte *Euskara Elkartera* egitasmoak elkarteak, Udala eta Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunearen arteko elkarlana bultzatu du. Alegia, Ttur-tturrek elkarteek hartutako konpromisoen jarraipena egin du eta behar izan denetan hauek betetzeko laguntza eskaini. Egitasmoaren arrakastaren gakoetako bat egitasmoaren ezaugarri hau izan dela uste dugu. Orain berriz beraiek egindako lana ebaluatuko bagenu eta honek gainera diru laguntzetan eragingo balu, orain arteko lan eskema aldatuko litzateke eta gu kontrolatzaile izatera pasako ginake. Aldaketa hau ez dugu positiboki baloratzen.

Gainera, hitzarmen bakoitza elkarte bakoitzaren behar, errealitate, aukera eta gogoen arabera osatu ziren eta hitzarmenak ez du kontenplazten beraiek hartutako konpromisoez haratago dagoen ezer. Beraz gure ebaluaketa ez da osatua izango.

Bestetik, neurketa irizpideak zein diren eta horiek nola baloratu behar diren zehaztu gabe egoteak gure ebaluaketa objektiboa izatea ezinezko bihurtzen du.

Horregatik, egokiago jotzen dugu elkarte bera izatea euskararekiko elkarteetan duten jarrera eta egoera baloratzen duena. Honetarako, ondorengo adierazle taula eta hauen baloreak zehazten saiatu gara. Esan gabe doa, adierazle hauek eta emandako baloreak ez direla aldaezinak eta urtez urte berrikusi beharko direla, behin betikoak izan daitezkeenak zehaztu bitartean.

KIROL ELKARTEEN DIRU LAGUNTZAK BALORATZEKO ADIERAZLEAK

Aurtengo diru laguntzarako adierazle hau beste atal batean kontuan hartu denez, besteetatik aparte jarri dugu. Hurrengo urteetara begira, adierazlea bera aldatu dugu (EGA maila beharrezko izatea proposatzen dugu eta ez EGA titulua bera). Bestalde, aurrera begira, adierazle hau gainerakoak baloratu ahal izateko baldintza izatea proposatzen dugu.

Proposamen honen baitan, lehenengo urtean adierazle hau % X mailan betetzea izango da baldintza, 2. urtean % X+Y eta 3. urtean %100ean betetzea izango da baldintza. X eta Y zehazteko, egungo abiapuntu orokorra zein den ezagutu beharko genuke. Honen arabera, 3 urteko epean, hala ez dituenak, entrenatzaile eskaldunak izan beharko ditu.

EUSKARAREN EZAGUTZARI DAGOKIONEZ	Ez da betetzen	Betetzen da		
		1. urtean % X	2. urtean % X+Y	3. urtean % 100
Kirolariek (eta batez ere haur eta gazteekin) harremana dutenek (entrenatzaile, delegatu edo beste) komunikazio guztia euskaraz izateko gaitasuna. EGA bidez ziurtatua edo euskara zerbitzuak egingo duen frogan egiaztatuta.				

	BALIOA	Ez da betetzen % 0	Betetze bidean % 50	Gutziz betetzen da %100
AHOZKO ERABILERARI DAGOKIONEZ	%50			
Kirolariek (eta batez ere haur eta gazteekin) harremana dutenek (entrenatzaile, delegatu edo beste) komunikazio guztia euskaraz izatea. Kirol elkarteek adieraziko dute hauek nola egiten diren, baina Udalak urteko edozein momentutan hori frogatzeko bideak jarri ahal izango ditu.	%35			
Bozgorailutik ematen diren oharrak euskaraz izatea. Kirol elkarteek adieraziko dute hauek nola egiten diren, baina Udalak urteko edozein momentutan hori frogatzeko bideak jarri ahal izango ditu.	%15			
IDATZIZKO IRUDI ETA ERROTULAZIOARI DAGOKIONEZ	%30			
Kanpoko errotulazioa				
Elkartearen errotulu nagusia, kartelak, oharrak eta beste (errifak, pankartak,...) euskaraz egotea. Hori neurtu ahal izateko argazkiak edo ereduak aurkeztu beharko dira. Udalak urteko edozein momentutan hori frogatzeko bideak jarri ahal izango ditu.	% 20			
Barruko idatziak				
Elkartearen barruko errotulu, ohar, gutun eta gainerakoak euskaraz egotea. Hori neurtu ahal izateko argazkiak edo ereduak aurkeztu beharko dira.	%10			
EUSKARA NORMALIZATZEKO EKIMENAK	%20			
Euskararen erabilera areagotzeko planen bat edukitzea.	%10			
Euskararen alde ekimenak antolatzea.	%5			
Euskararen alde antolatzen diren ekimenetan parte hartzea.	%5			

Proposamena lan taldera eramatea erabaki da.

Honen amaieran, diru laguntza irizpideek eman duten emaitza ikusten da, bertan elkarte bakoitzari zenbat diru emango zaion azaltzen delarik.

12/13 DENBORALDIKO FUNTZIONAMENDU GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZAK				
				2012/2013
PARTIDAK				
110248145200012013		Funtzionamendu gastuetarako		47.000,00 €
110248145200082013		Bereziki sustatutako jarduera		10.000,00 €
GUZTIRA				57.000,00 €
ESKUALDEKO ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZA				
Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkartea				3.040,00 €
MENDI TALDEE DIRU-LAGUNTZAK				
Hautzaro Mendi Taldea				1.020,00 €
Giriza Mendi Taldea				2.160,00 €
DIRU-LAGUNTZA ESKATU DUTEN KIROL TALDEAK				
PUNTUAZIOA				GUZTIRA
GUZTIRA	1.889,00	puntu		50.780,00 €
Baobab	30,00	puntu		806,46 €
Hautzaro Atletismo Taldea	127,00	puntu		3.414,01 €
Mikel Donea Euskal Makil Joko Taldea	81,00	puntu		2.177,44 €
Oiarpe K.E.	288,50	puntu		7.755,44 €
Oiartzun K.E.	833,00	puntu		22.392,66 €
Oiartzungo Saskilagunak S.K.T.	143,00	puntu		3.844,12 €
Power Rangers	37,00	puntu		994,63 €
Txost Oiartzun pilota	349,50	puntu		9.395,24 €
				50.780,00 €

Hemen galdetzen da ea ordainketa noizko izango den, eta esaten da, badirudiela aurten lehengo urtean baina hobeto doala gauza eta dena ustekaberik gabe joanez gero Iraila ingururako egiterik egongo zela, hala ere, beti bezala ez dago ziurtatzerik.

Irizpide berdinak mantendu behar diren egiten da galdeketa, eta honen inguruan ez da erantzun edo proposamen gehiagorik luzatzen.

Eskaerak eta galderak

Galdetzen da bereziki sustatutako jarduerak noiz arte sustatzen jarraituko diren, eta zenbat urte daramaten bereziki sustatuak izaten. Erantzuten da lehenago ez zegoela bereziki sustatutako modalitaterik, ez baitzegoen diru laguntza irizpide konkreturik. Horrela, 4 urtetan aurkezpen bat egin beharko diotela Udal Kirol Kontseiluari bereziki sustatutako elkarteek esanaz zergatik jarraitu behar duten horrela kontsideratuak izaten.

Herri kanpotik datozen kirolariek kiroldegiko bazkide egin behar dute kiroldegia erabiltzen duen edozein elkartetan entrenatu ahal izateko. Eskaera egiten da hau horrela ez izateko. Honi erantzuten zaio udalak behar ekonomikoak dauzkala eta bazkidetzaren premia dagoela, horrela, ezin dela kuota hori kendu. Erantzun honen aurrean eskatzen da irizpide bezala trata dadila kiroldegiaren erabilera ordaindua. Hau ere lan taldera bidaltzea erabaki da.

Eskatzen da Abuzturako taldeen egitura egina egotea kiroldegiko erabilera konpartitua begiratzeko.

Aipatzen da, aurten lan inspekzioak egon direla elkarte eta zentroetan, beraz, argi ibiltzeko.

Elkarteen aholkularitza eskatzen zaio udalari, datu baseak, estatutoak, aseguroak, legeak...

Besterik gabe bukatutzat ematen da Udal Kirol Kontseilu hau Maiatzaren 28ko 20:25tan